


2020ko JARDUERA MEMORIA

LT1 Basque District of Culture and Creativity
LT2 I+G+b
LT3 Cross Fertilization



AURKIBIDEA

1_TESTUINGURUA	4
2_OINARRIAK	5
3_LANTALDEAK	6
4_GARAPENA	7
4.1_LT1 BASQUE DISTRICT OF CULTURE AND CREATIVITY	7
4.2_LT2 I+G+b	11
4.3_LT3 CROSS FERTILIZATION	14
I. ERANSKINA: GLOSARIOA	17
II. ERANSKINA: LAN PROZESUA. ERAGILEAK ETA BILERA-EGUTEGIA	20

1_TESTUINGURUA

KSI sektorea ZTBP 2020n txertatua izan den Euskadiko RIS3 estrategiaren aukera-eremue-tako bat da. Jarraian aurkezten den dokumentuan, testuinguru horretan eta Euskal Autono-mia Erkidegoan (EAE) KSI sektorea etorkizunean garatzeko esparru sendo bat ezartzeko helburuarekin 2020an garatu diren lan-ildo nagusiak jasotzen dira.

Aipatzekoa da Covid – 19ak asko baldintzatu duela aurtengo egitekoa; beraz, hasieran plan-teatutako lan-metodologia etengabe berrikusi eta birformulatu da, ezarritako helburuak lortzeko xedea aintzat hartuz.

2_OINARRIAK

Helburua KSIak, Euskadin, aukera-eremu gisa finkatzea da. Hori lortzeko, honako giltzarri hauetan oinarritutako lan-metodologia ezarri da:

- **Sareko lana:**

- KSI sektoreko eragileak (publikoak eta pribatuak) prozesu osoan zehar integratzea.
- Prozesurako estrategikoak diren beste sektore batzuekiko elkarriketa.

- **Espezializazioa:**

- Landutako gaietan espezializatutako eragileekin kontrastatzea.
- Landutako gaietan espezializatutako nazioarteko eragileak egiaztatzea.

- **Eraginkortasuna:**

- Hainbat lan-forotan artikulatutako organigrama, erantzukizun- eta inplikazio-mailaren arabera.
- Mugarrien egutegia eta komunikazioa (barnekoak eta kanpokoak).
- Lan-foroen arteko koordinazioa.


- **Gardentasuna:**

- Linean partekatutako dokumentazioa eta prozesuaren egoerari buruzko eguneratze erregularra.
- Prozesuaren eta haren egoeraren inguruko kanpo-hedapeneko ekintzak.

- **Ebaluazio aktiboa eta jarraitua: prozesua eta emaitzak.**

3_LANTALDEAK

2019ko abenduan hartutako erabakiaren ondorioz, 2020an egindako lan osoa 3 lan-talderen (LT) inguruan egituratzen da, horietako bakoitzak hiru ekintza-ardatzetako bati berariaz eskainia: **LT1** Basque District of Culture and Creativity (BDCC); **LT2** I+G+b (Ikerkuntza, garapena eta berrikuntza); **LT3** Cross Fertilization (Ongarritze Gurutzatua).



Sareko funtzionamendua 3LT-en oinarria da; beraz, Euskadiko KSIekin lotutako eragileen arteko lankidetzak da hausnarketak sortzeko, erabakiak hartzeko eta ekintzak abiarazteko aukera ematen duena. Era berean, eta 4. atalean zehazten den bezala, proiektuen konplexutasunak eta inplikaturako eragileen aniztasunak beharrezkoa egin dute LT bakoitzaren lan-azpitaldeetan banatzea. Azpitalde bakoitzaren helburua da egindako lana egokitztea, kontrastatzea eta baliozkotzea, ezarritako helburuen arabera.

Parte hartzen duten eragileak beren sarearekin/proiektuarekin konprometituta daude bi urtez (2020 eta 2021).



4_GARAPENA

4.1_LT1 BDCC

Euskadin KSien sektoreak garatzen laguntzeko sortutako ekimena. Helburu hauek ditu:

- KSien sektorea egituraketan aurrera egitea.
- KSI profesionaleri eta enpresei laguntzea ekintzailetza, berrikuntza eta lehiakortasuna hobetzeko prozesuetan.
- Nazioarteko lankidetzaproiektuak sustatzea.
- Euskadiko KSiei nazioarteko ikusgarritasuna ematea.
- RIS3ko beste eremu batzuekin sustatzea polinizazioa gurutzatua.

Koordinazioa LT1: Innobasque.

Aurrekariak (2019)

Abenduaren 11.

- Euskadirako Kultura eta Sormen-barruti baten izaera definitzen duen estrategiaren aurkezpena.
- BDCCa garatzeko lantalde espezifiko bat sortzea, helburu nagusi hauek izango dituenak:
 - Etorkizuneko BDCCaren erronkekin lerrokatutako eragile eta eduki estrategikoak koordinatu, sustatu, antolatu eta artikulatzea, gainjartze posibleak saihestuz.
 - Kultura eta Sormen-azpisektore bakoitzaren errealitatearen inguruko elementuak maingaineratzea.

Desarrollo (2020)

Lan-dinamikak. Doitzea

BDCCa sortzeko prozesua aktibatuta, LT1 BDCC taldea izateaz gain, honako lan-azpitaldeak eratzen dira: LT1-1 Laguntzen Mapa; LT1-2 Industry Map; eta LT1-3 Erreminten Mapa.

Nazioartekotzea

Era berean, Districts of Creativity Network (DC Network) nazioarteko sareko kide izateko BDCCaren hautagaitza, 2020ko martxoan aurkeztu ondoren onartu zen.

A

B

C

D

Helburu espezifikoak

LT1-1 Laguntzen Mapa

A

- **Laguntzen Mapa egitea:** administrazioekin sortu, egituratu eta kontrastatutako datu-bat sortzea, eta sektoreko erakundeen kontsulta erraztuko duten orientazio-ibilbideak zehaztea (helburua, lurralde-eremua, sektore-eremua, nortasun juridikoa).

KSIentzat interesgarriak diren laguntzen identifikazioa eta kontrastea etengabe eguneratzen da. Dokumentu hau egiteko uanean, 63 laguntza daude 2020an, eta horien artean Covid - 19ari dagozkionak zehazten dira.

● Egoera: amaituta.

LT1-2 Industry Map

B

- **Industry Map garatzea:** sektorean hasten diren edo sektoreko azpisektore batzuk ezagutzen ez dituzten KSI eragileei zuzendutako tresna. Horri esker, begiratu azkar batean jakin daiteke laguntza-baliabide aktiboen sarea, bi matritzetan oinarrituta: premia/enpresa-funtzioa; eta hurbiltasuna eta erreferentzialtasuna. Erakunde publikoak (edo interes publikokoak) eta laguntza-baliabideak barne hartzen ditu. Ez ditu barne hartzen sorkuntzako/produkzioko ekimen pribatuak/enpresarialak eta tokiko/udaleko ekimenak. Orain arte bildutako agente guztiei kontsulta egin zaie, ados egon daitezen eta Industry Map delakoan sar daitezen.

● Egoera: amaituta.

LT1-3 Erreminten Transferentzia

C

- KSIek hainbat arlotan erabiltzeko **tresna interesgarriak abian jartzea:** estrategia, ku-deaketa, finantzaketa, jabetza intelektuala, nazioartekotzea, etab. Tresna horiek Euskadin garatu dira edo Flanders DC eredutik transferitu dira.

● Egoera: garapenean.

Hona hemen memoria hau egin arte egindako aurrerapenak:

- Oinarrizko laguntza-zerbitzua: BDCCko langileen orientazioa.
- BDCC adituaren laguntza-zerbitzua: adituen laguntza.
- BDCC laguntza-zerbitzu pertsonalizatua.

- Irizpide hauek definitzea (Flanders DC ereduaren arabera) etorkizuneko tresnak lehenes- teko: erraztasuna/erabilgarritasuna; erreferentzialtasuna; transferentziaren konplexuta- suna; eragina.

2020an garatutako tresnak lan-eremu hauei lotuta daude:

Ingurunea:	Jabetza intelektualak (JI):
• Tresna: — Industry Map.	• Tresnak: — JI eskubideak lagatzeko kon- -tratua. — Diseinu industrialeko lizen- -tzia-kontratua.
Enpresaren bilakaera:	Administrazioa eta finantzak:
• Tresnak: — AMIA analisia — Misioa eta ikuspegia. — Zergatik? — Balioak.	• Tresnak: — Kontratu-erako checklist-a: - Kontratazio orokorra. - Agentzia-kontratua. - Banaketa-kontratua. - Lizentzia-kontratua. — Finantza-plana: - Autonomoentzat. - ETE-entzat.
Negoio-eredua:	
• Tresnak: — Business Model Canvas. — Value Proposition Canvas. — Business Plan.	
Marketina:	
• Tresna: — Pricing Tool.	

C

Halaber, 2021ean garatu beharreko tresnen lehen zirriborroa proposatu da.

- **Tresna eta gai espezifikoetarako buruzko prestakuntza-plan bat diseinatzea**, nagusiki gara- tzen ari diren enpresa txiki eta ertainentzat eta autonomoentzat, online, offline eta pres- takuntza mistoa jasoko dituen.

● Egoera: garapenean.

Zeharkakoak

- **Web plataforma bat sortzea** BDCCren eskaintza zentralizatzeko eta proiektuaren helburuak lortzen laguntzeko.

● *Egoera: garapenean.*

- BDCCa sektore-mailan ikusaraztea ahalbidetuko duen **komunikazio-plana definitzea**.

● *Egoera: garapenean.*

Hona hemen memoria hau egin arte egindako aurrerapenak:

- BDCCaren argitalpen-ildoak definitzea:
 - Web berriak atalerako hasierako edukiak sortzea.
 - Edukiak sortzeko eta kudeatzeko gida egitea.
- BDCCaren komunikazio-estrategia:
 - BDCCraen komunikazio-estrategia aktibatzeke estrategia eta laguntza-txosten bat egi-
tea (konfigurazioa, gizarte-profiletan alta ematea eta kontu interesgarrien jarraipena).
- BDCC abian jartzeko kanpaina:
 - Online eta offline komunikabideetarako kreatibitateak definitzea.
 - Online kanpaina aktibatzeke, argitaratzeko, kudeatzeko eta monitorizatzeko hasie-
rako laguntza.
- KSI sektoreko enpresekiko harremanak: 425 kontaktatuak; 192 helbide elektroniko baieztatuak.

Oharra:

BDCCari buruzko proiektua Innobasquek koordinatutako batzorde batek gauzatzen du, eta SPRIk (Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko erakundea), Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Tabakalerak eta proiektuari esleitutako bi figura teknikoek osatzen dute.



4.2_LT2 I+G+b

Euskal kultura eta sormen-sektoreetan I+G+b aplikatzeko esparru kontzeptuala definitzea helburu duen lan-ildoak. Talde Orokorra egoteaz gain, honako lan-azpitaldeak eratzen dira: LT2-1 I+G+b kontzeptualizazioa; LT2_2 KSI ezagutza-poloa ksigune; LT2-3_ KIC KSI.

Koordinazioa LT2: Tecnalía.



Helburu espezifikoak

LT2-1 I+G+b kontzeptualizatzea KSI sektorera

A

- **Txosten bakarra egitea**, Europako orientabideekin kontrastatuta, honako hauek jasoko dituen: (1) I+G+b enpresarialaren kontzeptualizazioa, kulturaren eta sormenaren berezitasunetatik abiatuta eta beste sektore batzuekin homologagarria, eta (2) oinarri kultural eta sortzaileko gizarte-berrikuntza. 2021aren hasieran amaitzea aurreikusten da.

● *Egoera: garapenean.*

- **Nazioarteko adituekin kontraste-jardunaldiak egitea**, honako helburu hauek lortzeko: KSIen sektoreko berrikuntzaren esparru kontzeptuala adostea; KSIen sektoreko berrikuntzaren neurketa hobetzea; Euskadiko KSIetarako sarbidea ahalbidetzea nazioartean arrakasta izan duten berrikuntza-kasuen lehen eskuko informazioa; EAEn I+G+b babes-teko politika publikoei buruzko gogoeta egitea. 2020an, hasiera batean, 2 eguneko jardunaldi presentzialak proposatu ziren 2021eko lehen hiruhilekoan. Covid-19 egoera ikusita, jardunaldien materialen nazioarteko online kontraste bat egitea planteatzen da 2021eko lehen sei hilekoan, eta emaitzak zabaltzeko jardunaldi presentzial edo misto batzuk egitea 2021eko bigarren sei hilekoan. 2021eko lehen sei hilekorako aurreikusitako ekintzak honako hauek dira:
 - Kulturaren Euskal Behatokiak egindako erreferentziazko dokumentuen itzulpena.
 - Adituen pool-a definitzea.
 - Online plataforma eraikitzea eta dinamizazio-metodoak definitzea.
 - Online lana: adituekin egindako prozesua; plataforma dinamizatzea; ondorioak ateratzea.
 - Azken sintesia egitea (dibulgazioko azken jardunaldietarako lan-oinarri gisa).

● *Egoera: garapenean.*

LT2-2 KSI ezagutza - poloa ksigune

- **KSIekin lotutako prestakuntza-eskaintza identifikatzea** euskal unibertsitate-sistemaren eremuan.

● *Egoera: garapenean.*

Hona hemen memoria hau egin arte egindako aurrerapenak:

- Mapeatzeko taxonomia zehaztea.
- Erlazionatutako eragileak identifikatzea (graduoko eta graduondoko prestakuntza-eskaintza, ikerketa-taldeak, doktorego-programak, lotutako institutuak eta katedrak).
- Informazioa biltzeko galdetegiak diseinatzea.
- Emaizten lehen ustiapena.
- Emaizak bistaratzeko diseinu-proposamenak.

2021ari begira, honako ekintza hauek lehenestea aurreikusten da:

- Lehen informazio-bilketa honetatik ateratako emaitzen behin betiko argitalpena.
- Lehen programa pilotu bat sortzea, Euskal Goi Mailako Hezkuntzaren eta euskal KSI sektorearen beharrei erantzuteko.
- Gaitasunen Mapa Nafarroara eta Akitaniara zabaltzea.
- Mapak etengabe eguneratzea.

-
- **Ksigune web-plataforma sortzea**, Euskal Goi Mailako Hezkuntzaren KSI Ezagutza Poloa. Lantaldearekin behar bezala kontrastatu ondoren, 2021ean argitaratuko da orrialdea. Plataformak blog bat ere izango du, eta, horretarako, argitalpenen/dinamizazio-ekintzen plan bat diseinatuko da.

● *Egoera: garapenean.*

-
- **Lan-ildo hori nazioarteko foroetan kokatzea.** Ildo horretan, 2020an European Week of Regions and Cities (EWRC) delakoan parte hartu zen, Skills reform & partnerships for Smart CCI foroan, European Regions Research & Innovation Network (ERRIN) eta Regional Initiative for Culture and Creativity (RICC) erakundeek antolatua eta Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza koordinatuta.

● *Egoera: garapenean.*



LT2-3 KIC ICC

- **Proiektuak eta EU kontaktuak identifikatzea,** KIC ICC proposamena egiteko Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutuaren (EIT) Ezagutza eta Berrikuntza Erkidegoen (KIC/Knowledge and Innovation Communities) esparruan, eta, zehazki, KSien arloko etorkizuneko deialdi sektorialaren bidez.

● *Egoera: garapenean.*

Jarraian, lan-ildo honetan planteatutako ekintzak zein garapen-mailatan dauden adierazten da.

- Hautagaitzari begira (call) KICeko bazkide gisa proposa daitezkeen eragileen zerrenda bat sortzea.

● *Egoera: amaituta.*

- Parte hartzeko edo hautagaitza arrakastatsu bat sortzeko kontuan hartu beharreko funtsezko elementuak identifikatzeari buruzko ezagutza sortzea.

● *Egoera: amaituta.*

- Estatuko eta nazioarteko harremanetan aurrera egitea, etorkizuneko KIC bat sortzeko. 2020an, New European Media (NEM) Summit 2020 programan parte hartu da. Euskadiren EBrako Ordezkaritzak egindako kontaktuen eta informazioaren kontrastearen bidez, kontaktu interesgarriak eta partzuergo potentzialak detektatzen dira, eta Euskadi European Institute of Innovation & Technology (EIT) erakundearen testuinguruan kokatzen da.

● *Egoera: garapenean.*

- Interes handieneko partzuergoa hautatzea. 2020an, 50 erakundek osatutako partzuergo batekin lankidetzat hasi zen eta KIC CCI (2021ean argitaratzeko deialdia).

● *Egoera: garapenean.*

- **Proiektua definitzea,** lotutako dokumentazioa prestatzea eta proposamena aurkeztea.

● *Egoera: zain (deialdia argitaratzeko zain).*



4.3_LT3 Cross Fertilization

Kulturaren eta sormenaren (RIS3 estrategiaren araberako aukera-lurraldea) eta beste arlo edo "aukera-eremu" batzuen arteko polinizazioa, KSIei abantaila garrantzitsuak ekar diezazkiekeen ariketa dela uste da. Ildo horretan, aukerak bilatzearen ondorioz, argi eta garbi identifikatu dira KSIen eta elikaduraren sektorearen arteko sinergiak (katearen maila guztietan), eta harreman hori bultzatu eta sendotu egin da EAEn.

Proiektuaren konplexutasuna eta proiektuan parte hartzen duten eragileen aniztasuna direla eta, Cross Fertilization Talde Orokorra egoteaz gain, honako lan-azpitalde hauek eratu behar dira: LT3-1 Jardunbide egokiak eta LT3_2 Enpresen Topaketa.

Koordinazioa LT3: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

A

B

Helburu espezifikoak

LT3-1 Praktika onak

A

- Elikaduraren eta KSIen arteko sinergiaren arloko **jardunbide egokiak zabaltzea.**

● Egoera: garapenean.

Jarraian, esparru honetan planteatutako lan-ildoak zein garapen-mailatan dauden adierazten da.bajo planteadas en este marco.

- Kasuak identifikatzea eta hautatzea.

● Egoera: amaituta.

- Hedapenerako fitxak eta bideoak sortzea.

● Egoera: garapenean.

LT3-2 Enpresen Topaketa

- **ICC-Elikadura enpresa mistoen topaketa egitea.**

● Egoera: garapenean.

Jarraian, esparru honetan planteatutako lan-ildoak zein garapen-mailatan dauden adierazten da.

- Interesa duten enpresak identifikatzea.


● *Egoera: garapenean (bigarren bertsio bat).*

- Jardunaldia diseinatzea.

● *Egoera: garapenean.*

- Jardunaldia garatzea.

● *Egoera: egiteke.*



I.ERANSKINA: GLOSARIOA

ZTBP 2020: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2020 [INFO+](#)

RIS3: : Regional Innovation Smart Specialization Strategy (Espezializazio Adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia) [INFO+](#)

KSI: Kultura eta Sormen Industriak [INFO+](#)

BDCC: Basque District of Culture and Creativity (Euskadiko Kultura eta Sormen Barrutia)

INDUSTRY MAP: Euskadiko eragileen eta/edo erakundeen mapa dinamikoa, KSIei laguntzea helburu duena.

LAGUNTZEN MAPA: KSIen eskura dauden programa eta/edo deialdi desberdinen zehaztapena (finantzaketa, aholkularitza, prestakuntza, etab.).

ERREMINTEN TRANSFERENTZIA: KSIen jarduera garatzeko tresna erabilgarrien zerrenda (estrategia, kudeaketa, finantzaketa, jabetza intelektual, etab.).

I+G+b: Ikerkuntza, garapena eta berrikuntza.

KIC: Knowledge and Innovation Community (Ezagutza eta berrikuntza-komunitatea) [INFO+](#)

ksigune: *Euskampus*ekin elkarlanean sortutako ezagutza eta berrikuntza-foroa, eragileen arteko baterako sorkuntzan oinarritua eta erronka sozial eta globalei erantzuna ematea helburu duena.

Cross Fertilization: RIS3 estrategiari lotutako sektoreen arteko lankidetz-estrategia, sektore horiek ezagutza eta metodologia aplikatuen bidez elkar elikatzea helburu duena.

II.ERANSKINA: LAN PROZESUA

2020an lortutako emaitzak, neurri handi batean, hainbat eragilerekin partekatutako lan-saioen emaitza dira (KSIetakoak, prozesurako interesgarriak diren beste sektore batzuetakoak edo gai espezifikoetan espezializatutako figurak, etab.). Jarraian, orain arte lankidetzan aritu diren kanpoko eragile horien zerrenda zehazten da, baita haiekin egindako bileren egutegia ere.

_ERAGILEAK

LT1

LT1-1 Laguntzen Mapa

- Gasteizko Udala. Kultura Saila
- Arabako Foru Aldundia. Kultura Saila
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustatzeko Saila
- Bizkaiko Foru Aldundia. BEAZ
- Arabako Foru Aldundia. Ekonomiaren Garapenerako Zerbitzua
- Bilboko Udala. Bilbao Ekintza

LT1-2 Industry Map

- Eskena
- HABIC
- EIKEN
- EHMBE
- EIDE
- Gasteizko Santa Maria Katedrala

LT1-3 Erreminten Transferentzia

- Tabakalera
- Euskampus
- Elkargi
- Basquemoda
- Euskalit

Koordinazioa LT1: Innobasque.

LT2

LT2-1 I+G+b kontzeptualizatzea KSI sektorerako

ICC Consultors
Innobasque
Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila - Kultura Sustatzeko Zuzendaritza
EHMBE
Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustatzeko Saila
Gasteizko Udala. Ekonomia Sustatzeko Saila
Karraskan

LT2-2 KSI ezagutza poloa ksigune

Euskampus
Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila - Kultura Sustatzeko Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila - Kultura Ondarearen Zuzendaritza
AVPIOP
FCSM
Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila - Kultura Ondarearen Zuzendaritza

LT2-3 KIC ICC

Vicomtech
Tecnalia
Langune
GAIA - BasqueGame
ZAWP
BCC Innovation
Bilboko Udala. Bilbao Ekintza
Euskadiren EBrako Ordezkaritza
Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila - Kultura Sustatzeko Zuzendaritza
Eskena

Koordinazioa LT2: Tecnalia.

LT3

LT3-1 Praktika onak

BEAZ

Vicomtech

EIKEN

AZTI

Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila - Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

LT3-2 Enpresen Topaketa

Karraskan

EIDE

Tecnalia

GAIA - BasqueGame

Arabako Foru Aldundia. Kultura Saila


Publizitate Agentzien Elkarte

Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila - Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Koordinazioa LT3: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

_BILERA – EGUTEGIA

Aurreko lerroetan adierazi bezala, sarean garatutakoa funtsezkoa izan da 2020an zehar helburuak lortzeko. Jarraian, eragileekin izandako bileren egutegia zehazten da. Azpimaratu behar da zenbait lantaldeetan (LT) berariazko lan-azpitaldeak eratzea erabaki dela (egutegian zehazten dira). Azkenik, adierazi behar da, lantaldeen esparruko jardueraz gain, egitekoen garapena barneko lan-prozesuekin osatu dela, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak koordinatuta.



LT2

MAIATZA
LT2 5

EKAINA
LT2 5

UZTAILA
LT2-3 16
LT2-1 22
LT2-2 23

IRAILA
LT2-1 17

URRIA
LT2 29

LT2 15

Bilerak, guztira: 8

- LT2: 4
- LT2-1: 2
- LT2-2: 1
- LT2-3: 1

LT3

OTSAILA
LT3 18

MARTXOA
LT3 24

APIRILA
LT3 23

EKAINA
LT3 3
LT3-1 21

IRAILA
LT3-1 16
LT3-2 22
LT3 23

LT3 15

Bilerak, guztira: 9

- LT3: 6
- LT3-1: 2
- LT3-2: 1

